



DISKOA

# Antigoaleko balio pisutsuak



**DILMUN**  
**RODEO**

AUTOEKOIZPENA, 2017

**IKER BARANDIARAN**

**T**xangoa egin genuen Ekainberrira, antzinako gizakiez gehiago jakiteko. Bueltan Zestoan ekaitzak harapatu eta pilotalekuan hartu genuen aterpe. Bat-batean, lur azpiko orro batek egin zigun ongietorria: sakona, gordina eta batez ere irmoa. Orduan jakin nuen herri lasai eta eder horrek, inork aurreikusi ez zuen eszena indie aberatsaz gain –hori beste egun baterako misterioa–, baduela antigoaleko beste herri bat ezkutuan, azpian, antzinako gizakietatik transmititutako jakinduria eta balioak gordetzen ahalegintzen dena; eta hor diraute batzuek lur azaleko suge, gezur eta gerretatik salbu momentuz.

Eta hala jakin nuen Zestoako Rodeo taldeak 2014tik diharduela Kalifornia-

ko desertuan naturarekin bat eginda luraren orro sarkorrena atera zuten John Garcia eta haren enparauen esentzia hona ekarri eta biderkatzen. 2017an stonerra, rocka eta melodiak batzen zituen diskoa eman zuten argitara. Baina azaleko piztiak ikusita lur azpira jaitsi dira berriro antigoaleko herri honen kontzeptua ipar duten kanta berriak, landuak, zizelkatuak idatzi eta erditzera.

*Dilmun* da emaitza, gogoz, mimoz eta erraietatik erditu dutena. *Hegan* stoner indartsu eta pisutsua da, riff oso landuak eta trinkotasun hori apurtzen duen ahots garbi eta melodikoarekin. *Karkenish* stonerra eta ekialdea batzen dituen instrumentala. *Lur xurgatuak* metal detektagailuan trabatuta gelditzeko moduko

stoner azkarra. *Ikusi eta ukatu* abesti borobila, stonerraren pisua, 70eko hamarkadako rock jostariarekin ezkondu eta ahotsean Aitor Gorosabel inspiratuena gogora ekartzen duena. *Tiamat* espaziala, intrigantea eta iluna da, Dut gogoraziz. *Dilmun* Dave Wyndorf-ek idatzi ahal zuen piezatzarra. *Borrokaren hatsa* Subari Shock-en ahotsak borobildutako stoner-rock kañeroa. *Entzun LTT*ko Josebak biderkatutako abesti borobil eta sentikorrena, anitza. *Marduk* ekaitzaren sorrera eta eztanda irudikatzen duen partate ambientala. *Sugeak* iragan heavya antzematen uzten duen stoner trumoi. *Gure bide galduak* Benito Lertxundiri eta belaualdi bati gorazarrea. Eta, bukatzeko, *Hey* jolas instrumental kiribildua. ●